



## IRAKASTEKO HIZKUNTZA AUKERATU AHAL IZATEA NAHI DUTEN INTERESDUNEI BIDALITAKO IDAZKIA

(LABURPENEA)

Egia da Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), bi hizkuntza ofizial dituzten beste autonomia-erkidego batzuetan gertatzen ez den bezala, indarreko hezkuntzako hizkuntz antolamenduak, orain arte, hizkuntza aukeratzeko sistemaren alde egin duela hezkuntzako etapa guztietan.

Horren haritik, 10/1982 Legeak, azaroaren 24koak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizkoak, eta 1/1993 Legeak, otsailaren 19koak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, ikasle guztiek hezkuntza-maila guztietan irakaskuntza bai euskaraz bai gaztelaniaz jasotzeko duten eskubidea bermatzen dute.

Horrela, irakasteko hizkuntza aukeratzeko askatasuna gure sistemaren funtsezko oinarria da eta horren baitan ezartzen dira irakastereduak, horietako bakoitzean hizkuntza koofizialetako bakoitzari ematen zaion birtualtasunaren arabera.

Hala ere, kontuan izan behar da hezkuntzako hizkuntz antolamendu hori Euskal Autonomia Erkidegoko legegilearen aukera dela eta, gainera, Konstituzioak ez duela inolako eragozpenik jartzen, hala bada, “*hizkuntzak elkartzeko*” sistema edo “*erabateko elebitasuneko*” sistema deitu izan zaien beste sistema-mota batzuk ezartzeko.

Hain zuzen ere, Kataluniako Hizkuntz Normalizazioari buruzko apirilaren 18ko 7/1983 Legearen inguruan sortutako konstituzio kontrakotasuneko arazo bat zela-eta, Auzitegi Konstituzionalak horren inguruko iritzia eman ahal izan du. Auzitegi Gorenaren arabera:

*...gaztelaniaz jakiteko betebeharrak konstituzionalaren edukia –auzitegi honek 82/1986 epaian zehaztuak– ezin dezake irakaskuntza soil-soilik gaztelaniaz jasotzeko eskubiderik sortu. Halako eskubiderik ez dago ez EKren 3. artikuluan, ez EKren 3.2 artikuluan aipatzen duen Kataluniako Autonomia Estatutuaren 3.3 artikuluan. Ez dugu ahaztu behar, hain zuzen ere, **autonomia-erkidego baten berezko hizkuntza koofiziala izateak ondorioak dituela hizkuntza horretan eskaintzen den irakaskuntzan**, aurreko erabakietan azpimarratu dugun bezala (Auzitegi Konstituzionalaren 87/1983 epaia, 5. oinarri juridikoa; 88/1983 epaia, 4. oinarri juridikoa; eta 123/1988 epaia, 6. oinarri juridikoa). Esan dugun bezala, kasu honi dagokionez, beraz, ezin jar daiteke zalantza komunikazio bide gisa autonomia-erkidego batean berezkoa eta lurralde horretan gaztelaniarekiko koofiziala den hizkuntza darabilen irakaskuntzaren legimitotasun konstituzionala (Auzitegi Konstituzionalaren 137/1986 epaia, 1. oinarri juridikoa), hori EKren 3.*



*artikuluaren eta dagokion autonomia-estatutuan ezarritakoaren ondorioa baita. Doktrina hori, irakaskuntza jasotzeko hizkuntza koofiziala aukeratzean datzan elebitasun eredurako finkatu den arren (halaxe gertatzen da Euskal Autonomia Erkidegoan), aplikagarri zaio, halaber, bi hizkuntza koofizialak batzean datzan ereduari (eredu hauxe iradokitzen du Kataluniako Parlamentuaren 7/1983 Legeak).*

*Bestalde, EKren 27. artikulua ikuspegitik ere atera daitekeen ondorioa da **ez manu horretan onartuta dagoen hezkuntzarako eskubide konstituzionalaren edukiak, ez eta, bereziki, bertako 2, 5 eta 7. atalek ere, ez dakartela irakaskuntza autonomia-erkidegoan koofizialak diren bi hizkuntzetatik bakar batean, interesdunak hala aukeratutakoan, jasotzeko eskubidea. Guztiok dugu hezkuntza jasotzeko eskubidea eta, ez dezagun ahatz, eskubide hori hezkuntza-sistema jakin batean baliatzen da. Sistema horretan, botere publikoek –hau da, Estatuak, oinarrizko legeriaren bidez, eta autonomia-erkidegoek, arlo honetan dituzten eskumenen esparruan– zehazten dituzte irakaskuntzako maila, etapa, ziklo eta graduen curriculumak, gutxieneko irakaskuntzak eta landu behar diren arlo edo gai zehatzak eta, orobat, hauek ikastetxeetan izango duten garapena antolatzen dute; hortaz, hezkuntza, oro har, jarduera arautua da. Horrela, Konstituzioak bermatzen duen hezkuntzarako eskubideak ez dakar botere publikoek arlo honetan garatzen duten prestazio jarduera interesdunek irakasteko hizkuntza libreki aukeratzearen menpe egon ahal izatea. Horregatik, botere publikoek, hau da, Estatuak eta kasuan kasuko autonomia-erkidegoak, autonomia-erkidego horretan koofizialak diren bi hizkuntzak irakaskuntzan komunikazio hizkuntza gisa erabiliko direla zehazteko ahalmena dute, hezkuntzaren arloko eskumen banaketarekin bat etorritz.***

Auzitegi Konstituzionalak adierazitakoa aintzat hartuta, esan daiteke Eusko Legebiltzarrak 2005eko abenduko osoko bilkuran onartu zuen ez-legezko proposamenaren moduko ekimenek badutela oinarririk. Proposamen horren bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari eskatu zion *irakaskuntza arloan komunitateko bi hizkuntza ofizialetan maila orotako konpetentziak bermatuko dituen eredu berri baten azterketari berehala ekiteko, eta, eredu berriaren aplikazioa ziurtatzeko bide bakar gisa, irakaskuntzako legedia berritzeko.*

Izan ere, Legebiltzarraren aginduari jarraiki, 2007ko martxoaren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak, berak hala eskatuta, agerraldia egin zuen Hezkuntza eta Kultura Batzordean, hizkuntzak elkartzera bideratutako aldaketa garrantzitsuak zekartzan ikasi eta irakasteko eredu edo marko eleanitz berriaren proposamena aurkezteko; adierazi zen bezala, hori ezartzeko beharrezkoa zen antolamendua aldatzea. Kontua da, ordea, ez dela horren inguruko inolako berririk izan.

Hauxe izanik, derrigor, hezkuntzaren alorreko edozein hizkuntz ekimen ikuspegi juridikotik bakarrik baloratzeko aintzat hartu behar dugun testuingurua, harrigarria dena da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum berria ezartzeko erabakia hartu duela, horrek dakartzan aldaketekin, eta hori lege aurrekariak berberak izaten jarraitzen duten arren egin duela.



Horren haritik, 175/2007 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzekoak, helburua hezkuntza-sistema elebiduna sendotzea eta ikasleek, Oinarrizko Hezkuntza amaitzean, Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialekin komunikatzeko gaitasuna eskuratuko dutela bermatzea dela adierazi ondoren, eta nahiz eta ikastetxeek aukera izango duten curriculumaren planteamenduak beren hizkuntz proiektura egokitzeko eta aintzat hartu behar izango duten elebitasunaren helburua lortzeko eta curriculumeko edukiak irakasteko bide egokiena hizkuntzak komunikazio hizkuntza gisa erabiltzea dela, eskolan komunikazio hizkuntza nagusia euskara izango dela dio.

Baina, edonola ere, hedabideetan argitaratutako berrien arabera dekretu horren aurka egin diren administrazioarekiko auzi errekurtsioen ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko (EAEAN) magistratuek eman behar izango dute gaiaren inguruko epaia. Izan ere, erantzun hau prestatzerakoan, eta hedabideetara ere heldu denaren arabera, badirudi EAEANek, kautelaz eteteko eskaerari uko egin dion arren, guk egindakoarekin bat datorren irakurketa egin duela.

Hala ere, dakizun bezala, erakunde hau bera eratu zuen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13.1 artikuluan ezartzen denari lotu behar zaio; artikulua horrek berariaz dioenaren arabera, *Arartekoa ez da sendetsitako epaiaren gai izan edo epailaritzarabakiaren zain egon daitezkeen arrenkurak banaka aztertzen hasiko.*

Baina, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum berriaren inguruan egindako errekurtsioak salbu utzita, eta antza EAEANek aurreratu duen moduan, gogoan izan behar dugu, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak arautan beharrezko aldaketak egiten ez dituen bitartean, EAEko hezkuntzako hizkuntz antolamenduaren esparruak bera izaten jarraitzen duela eta, beraz, azken batean, horrek Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian berariaz jasota dauden hiru hizkuntz ereduen artean (A, B eta D) aukeratzea ahalbidetzen du.